



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailak 7

Vitoria-Gasteiz, 7 de septiembre de 2022

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 4,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLA-GARRAIORAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat 2022-2023 ikasturtean eskola-garraiorako banakako dirulaguntzak deitzen dituen Agindua onartu du. Deialdi honek 4.554.000 euroko diru kopurua du.

Dirulaguntza hauen jasotzaileak izango dira, ezgaitasun larriak izan (ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala) eta, antolatutako eskola-garraioa edota ohiko garraio publikoa erabili ezin dezaketen ikasleak, eta hortaz, euren etxebizitzetatik eskoletara joatea erraztuko duen garraio-alternatiba bat behar dutenak. Eskola inklusiboaren aldeko printzipioari jarraiki, Hezkuntza Sailak ikasle hauek ikasteko edo parte-hartzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatu eta leundu nahi ditu deialdi honen bidez, eta eskola-garraioa ez dadila zailtasun bihurtu ikasle bakoitza ingurunerik egokienean eskolaturik egon dadin.

Laguntza hauen onuradun izateko, gorago aipaturiko desgaitasunen bat izateaz gain, ikasleek 2022-2023 ikasturtean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko edo Oinarrizko Lanbide Heziketako etapetan matrikulatuta egon beharko dute, ikastetxe publikoetan. Itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleak laguntzen onuradun izan daitezke, baldin eta Hezkuntza Administrazioak berariaz hala aginduta izan bada, Sailaren ikastetxeen sarean eskaintzarik ez dagoelako.

Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa handitu ahal izango du Hezkuntza Sailak beharrezkoa izanez gero, laguntza horiek jasotzeko eskubidea duten eskabideen kopurua kontuan hartuta. 2021-2022 ikasturtean, ezgaitasunen bat zuten 1.070 ikasleren 164 ikastetxetarako garraioa finantzatu zen deialdi honen bidez.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

ERRENTERIAN BABES SOZIALEKO 27 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO HITZARMENA BAIMENDU DU GOBERNU KONTSEILUAK

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Errenteriako Udalak 1.314 m²-ko partzela bat doan lagatzeko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, Gipuzkoako udalerrian alokairuko babes sozialeko 27 etxebizitza eraikitzeko.

Etxebizitzak herriko Esnabide sektorean egongo dira, eta bertan erroldatuta dauden eta Etxebiden izena emanda dauden pertsoneri lehentasunez alokatzera bideratuko dira. 27 etxe berrietatik lau ordezeko bizilekuak emateko erabili ahal izango ditu Udalak, Udalaren hirigintza-jarduketan ondoriozko ordezeko bizilekuak, hain zuzen.

Hitzarmenak ezartzen du administrazio autonomikoa arduratuko dela eraikuntza-proiektua kontratatzeaz eta idazteaz, baita obren zuzendaritza eta egikaritzea eta ingurunearen urbanizazioa lizitatzeaz ere. Bestalde, Udalak doan lagako dio partzela Etxebizitza Sailari, dagozkion lizentziak emango ditu eta eraikuntzarako behar den plangintza onartuko du. Orobat, tasak ordaintzetik salbuetsiko du Eusko Jaurlaritza, eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren % 95eko hobaria emango dio.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 14 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABA ADINGABEAK ZAINTEKO LANGILEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA BERRIAK SUSTATU DITU

- **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak** sustatutako dekretua; **4.000.000** euroko zuzkidura du, atzeraeraginezkoa da **2021/07/01**etik, orduan amaitu baitzen pandemian abian jarritako laguntzen indarraldia
- **Beatriz Artolazabal**: “iraunkorra da **0** eta **14** urte bitarteko seme-alaben zaintzaileak kontratatzeako dirulaguntza, eta araudi osoa bateratzen da”

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko** langileak kontratatzeako laguntzen dekretuari; dekretua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak sustatu du. **Beatriz Artolazabal** sailburuak nabarmendu duenez, “erabaki dugu iraunkorra izatea 0 eta 14 urte bitarteko seme-alaben zaintzaileak kontratatzeako dirulaguntza, eta araudi osoa bateratzea”

IV. Planean aurreikusitako kontziliaziorako laguntzen inguruko neurriak aurreko dekretu baten bidez garatu ziren; dekretu horrek 3 urte arteko seme-alaben zaintzaileak kontratatzeako laguntzak arautzen zituen. Ondoren, COVID-19aren larrialdi-egoerak EAEko familietan eragindako ekonomia- eta gizarte-inpaktuari erantzuteko, 2020/2021 ikasturtean 3 eta 14 urte bitarteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzak deitu ziren. Agindu horren arabera, diruz lagundu zitekeen aldia 2020ko irailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era bitartekoa zen.

2021eko maiatzaren 9an, COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoera kudeatzeko azken alarma-egoera amaitu zen. “Une honetan –esan du Artolazabal sailburuak–, EAEko gizartea lanean ari da haren ekonomia- eta gizarte-jarduera berreskuratzeko eta osasungintza-sistemak arretarako duen gaitasuna bermatzeko”. EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak 2020an EAEko jaiotza-tasaren bilakaeraren inguruan emandako datuen arabera, % 4,5eko jaitsiera egon da jaiotza kopuruan.

Hori dela eta, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak erabaki du iraunkorra izatea 0 eta 14 bitarteko seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeako dirulaguntza, eta lege-kidego koherente bakarrean bateratzea zaintzaileak kontratatzeako familientzako laguntzei buruzko araudi osoa.

“0 eta 14 bitarteko seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko laguntza kontziliazio erantzunkiderako laguntza-neurri bat da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legean zehazten denez: betebeharrak eta beharrezko pertsonalei erantzuteko orduan bidezko oreka lortzea du xede, eta zaintzen erantzukizuna funtsean emakumeek izatea saihesten du. Hala, egungo banaketa desberdina zuzendu nahi du, zeina emakumeek bizitzaren zenbait eremutan jasaten duten desberdintasuneko eta bereizkeriako egiturazko egoeraren oinarrian baitago”, azpimarratu du Artolazabalek.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 4,5 MILLONES DE EUROS PARA EL TRANSPORTE ESCOLAR DEL ALUMNADO CON NECESIDADES EDUCATIVAS ESPECIALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan las asignaciones individualizadas de transporte escolar para alumnado con necesidades educativas especiales escolarizado en centros públicos o excepcionalmente, en centros privados concertados durante el curso 2022-2023. Esta convocatoria cuenta con un importe de 4.554.000 euros.

Estas asignaciones tienen como destinatarios aquellos niños y niñas que, por padecer graves limitaciones (discapacidad física, psíquica o sensorial), no pueden utilizar las líneas escolares organizadas o los transportes públicos ordinarios, por lo que es preciso arbitrar una alternativa que les facilite el traslado diario desde su domicilio al centro docente. Siguiendo el principio de la escuela inclusiva, el Departamento de Educación pretende eliminar o minimizar las barreras que este alumnado pueda tener para el aprendizaje y la participación, y que el transporte escolar no sea un impedimento para que cada alumno o alumna esté escolarizado en el entorno más apropiado.

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas los alumnos y alumnas que, presentando laguna de las discapacidades anteriormente citadas, se encuentren matriculados durante este curso 2022-2023 en las etapas de Educación Infantil, Primaria, ESO o FP Básica, en centros públicos. El alumnado matriculado en centros concertados podrá ser beneficiario de las ayudas en el caso de que lo haga por indicación expresa de la Administración educativa por falta de oferta disponible en la red de centros del Departamento.

La cuantía destinada a esta convocatoria podrá ser incrementada, si fuera necesario, teniendo en cuenta el número de solicitudes con derecho a estas ayudas. El pasado curso 2021-2022 se financió mediante esta convocatoria el traslado de 1.070 alumnos y alumnas con discapacidad a 164 centros escolares.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA UN CONVENIO PARA CONSTRUIR 27 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN SOCIAL EN ERRENTERIA

El Consejo de Gobierno ha autorizado la cesión gratuita de una parcela de 1.314 m² por parte del Ayuntamiento de Errenteria al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, para la construcción de hasta 27 viviendas de protección social en alquiler en el municipio guipuzcoano.

Las viviendas estarán ubicadas en el sector Esnabide de la localidad y se destinarán preferentemente para su arrendamiento por parte de personas empadronadas en ella e inscritas en Etxebide. Cuatro de los 27 nuevos hogares podrán ser utilizados por el Ayuntamiento para realojos derivados de actuaciones urbanísticas municipales.

El convenio establece que la administración autonómica se encargará de contratar y redactar el proyecto constructivo, así como de licitar tanto la dirección como la ejecución de las obras y la urbanización del entorno. Por su parte, el Ayuntamiento cederá de forma gratuita la parcela al Departamento de Vivienda, otorgará las licencias pertinentes y aprobará el planeamiento necesario para la edificación. Asimismo, eximirá al Gobierno Vasco del pago de tasas y bonificará el 95% del Impuesto sobre Construcción, Instalaciones y Obras.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO PROMUEVE NUEVAS AYUDAS A LA CONTRATACIÓN DE PERSONAS TRABAJADORAS PARA EL CUIDADO DE HIJAS E HIJOS MENORES DE 14 AÑOS

- Decreto promovido por el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales y dotado con 4.000.000 de euros, con carácter retroactivo desde 01/07/21, fecha en que finalizó la vigencia de las ayudas puestas en marcha durante la pandemia
- **Beatriz Artolazabal**: “se subvenciona de forma permanente la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos de 0 a 14 años, unificándose toda la normativa”

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno al decreto de ayudas a la contratación de personas trabajadoras para el **cuidado de hijas e hijos menores de 14 años** de edad promovido por el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. La Consejera **Beatriz Artolazabal**, ha destacado que “hemos decidido subvencionar de forma permanente la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos de 0 a 14 años, y unificar toda la normativa”

Las medidas relativas a las ayudas a la conciliación previstas en el IV Plan fueron desarrolladas a través de un anterior Decreto que regulaba las ayudas a la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos hasta los 3 años. Posteriormente, como respuesta al impacto económico y social que la situación de emergencia sanitaria COVID-19 ocasionó en las familias vascas, se convocaron las ayudas a la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijas e hijos de entre 3 y 14 años de edad durante el curso escolar 2020/2021. El período subvencionable previsto en dicha orden comprendía desde el 1 de septiembre de 2020 hasta el 30 de junio de 2021.

El 9 de mayo de 2021 finalizó el último estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por la COVID-19. “En estos momentos –detalla la Sailburu Artolazabal- la sociedad vasca trabaja para recuperar su actividad económica y social y garantizar la capacidad de atención del sistema sanitario”. Los datos del EUSTAT, Instituto Vasco de Estadística, sobre la evolución de la tasa de natalidad en Euskadi en el año 2020 reflejan una caída del 4,5% en el número de nacimientos.

Por ello, el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales ha decidido subvencionar de forma permanente la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos de 0 a 14 años, y unificar en un único cuerpo legal coherente toda la normativa relativa a las ayudas a las familias por la contratación de personas cuidadoras.

“La ayuda a la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos de 0 a 14 años es una medida de apoyo a la conciliación corresponsable, tal y como se define en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombre y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres: busca un justo equilibrio a la hora de dar respuesta a las obligaciones y necesidades personales, y evita que recaigan fundamentalmente en las mujeres la responsabilidad de los cuidados. Así, se pretende corregir la desigual distribución actual, que está en la base de la situación estructural de desigualdad y discriminación que sufren las mujeres en los diferentes ámbitos de la vida” destaca Artolazabal.